

LEHEN ALDEA

MAITATZEN ZAITUDALAKO

(Hitzak: J. Ormazabal
Doiñua: J. Tapia)

Maitatzen zaitudalako kantatzen dizut zuri zu zaitut negu beltzean eguzki epel zuri sargori denean berriz maitasuneko euri.

Guk elkarrri zenbait kontu eta zenbait irriñol iruditzen zait gerala ilargitan bi laino, egunez bihurtzen gera zu ta ni bi txoriño.

Elkarri begiratuta hasten gera kantari orduan deitzen diogu maitasun-haizeari eta harek jarzen gaitu firi-firi dantzari.

Dantza dezagun, ba, dantza maitño bihotzekol mundura ez ginen jalo gu triste bizitzeko, baizik fristura guztiak kantuz poz bihurtzeko.

STRESSA

(Hitzak: J. Ormazabal
Doiñua: J. Tapia)

Presaka bizi gaituk hau dek hau estresal tranbia baino naio diagu espresa gainezka zeukeagu nerbioen presa.

Etxean bazeukeat ordenadorea Benidorrén pisoa Katxe datorea Baina norik ostu zidak neri umorea?

Nik ere badizkiat makinat arazo bostehun mila peseta nahiz ilero jaso amodio kontuan frakaso-fracaso.

Sikiatrek ziotek bizitzeko lasai honela baino askoz hobe diogu bai ardi batzuk hartuta Aralarren artzai.

ANBOTOTIK GORBEARA

(Hitzak: X. Amuriza
Doiñua: J. Tapia)

Anbototik Gorbeara Ortziar arku bat bada Eztaietan edertzeko Bizkaia eta Araba.

Jaizkibel eta Aizkorri Ernio gara Oskorri Haitzean isladatzen den Gipuzkoa eder hori.

Aralartik Iratira izarrak oihandu dira Ilargia pasatzen da Nafarroari begira.

Ordeka eder Lapurdi Zuberoran bortu haundi gorago ta leordenago Orhi eta Aunamendi.

Adurretik an Ebrora Itsasoa ta lehorra Herri batek kantatzen du etorkizun hilezkorra.

SINISTU EZKERO

(Hitzak: J. Ormazabal
Doiñua: J. Tapia)

Pinpilipauxak hegan zelairikari zelai txori denak kantari kilkerak ere bai «kri-kri-kri» txorobio txiruli txirulai.

Zuhaitzak jantzi dira hosto berde-berdez erleak burrun-burrun eguzkia parrez zerua beteko da gauean izarrez.

Ilargia han golan trikititza jotzen izarrek dantzan dabiltz ez dira gelditzen kanpandorreko hontza ari da esnatzen.

Hontzaren irrintzia entzuten da gero haizea bihurtu da gauean pandero ixtori polita da sinistu ezker.

BIGARREN ALDEA

HIK LAN ETA NIK JAI

(Hitzak: X. Amuriza
Doiñua: J. Tapia)

Bazekiat lanean jolasten ere bai ez dakidan gauzarik ez diat egin nahi. Hi ere izango haiz zerbaitetarako gai egingo al diagu hik lan eta nik jai?

Buruan haizea ta irria hortzean odola dantzatzen zait solñua jotzean Ez bilatu negarrik nire bihotzean nahikoa egin nian mundura sortzean.

Maitatzea jolasa izan baliteke txikitatik izan dut jolastea maite. Hain ona ta erreza pena litzateke mundutik joatea nahiko egiteke.

Ongi dibertitzeko mutil eta neska aski dira bi esku eta hiru peza. Astegunez jai eta jaiegunez festa jolasa bezalako zoriorik ezta.

MADDALEN

(Hitzak: J. Tapia
Doiñua: Flaco Jimenez)

Zutaz aroitzen naiz nere Maddalen etxetik urrun nabil maite zaitudan arren.

Festa bakar hartan azaldu zinen dena esango dizut maite zaitudan arren.

Saito ta algara egin dugu aurten ia puskatu zaitut maite zaitudan arren.

Baina bukatu da seguru naiz zeren etxetik urrun nabil maite zaitudan arren.

FESTARIK FESTA

(Hitzak: Tapia eta Leturia
Doiñua: Flaco Jimenez)

Nahiz gauza asko ezagutu munduan bada zerbait bai hartu nahi dut kontuan ez dakit nola esplikatut kontuan neskata bat dut hemen nere onduran.

Gure bizitza juerga eta parranda gero egunez lo egiten dugu etzanda horren errudun etsaien bat izan da gu nun gabiltzan seguru bera han da.

Festarik festa lan egin behar gauero Festarik festa hor nabil ni egunero gure etsaia benetan dago ero zigortzen gaitu inoliz hutsegin ezker.

Aizu neskata ba al dakizu benetan norekin hasi zeran hartu emanetan? hau da egia zihur zaude horretan bihurtu leike maitasuna penetan

Konplikazio ainitz bada gurekin bizitza honi ezin diogu aldegin nere aukera ez bazaizu atsegin gure artekoa beharko da desegin.

BESAMOTZA

(Hitzak: Jakoba Errekondo / Doiñua: J. Tapia)

Etxean ikasiak ez zaizkidak berehalakoan aztuko badakik: nahi ta ezin. Okerra izan eta zuzentzen gaitza lagun loratuak amets' eta zigarro kiratsa ez badu kirol-izerdialduna inguruan.

Maitia hi haiz nere besamotza ene maitemin larrien truke begirada mioparen moztasuna besterik eskatzen ez duena.

Txepelaren hego haize ergelak eta zintzoegi honen ipar-horratzak autsi dizkik dabenerako hire ezak. Maitia, hi bai haiz nere besamotza. Hire ezker faltak probokatzen nau, ene buruaz hi egiten nau.

Ene buruaz hi bai, halajainena Ni, alu gozoasko, bakar, haitza. Hire bizi-miñetako penditza, malkonetan kupida gabe, jausi nauk gordina, eta... laurrua bizirik hemen naukak, maitia, besamotz maitia.

EROMERIAN

(Hitzak: Joseerra Gartzia
Doiñua: J. Tapia)

Munduan beste asko legez bizi gera bizi geranez gu bezain ongi bizi denik gutxi delako ustez.

Ba dago ta bonbon ez balego egon ondorengoak hor konpon Progresoak zer on egin ote dion naturari aspaldion.

Eromerian Eromerian bizi gara bizi guk zer gura, hura uka Eromerian Eromerian Arin-arin arian

Hauteskondeak dira hemen urtean lau aldiz bederen aurretik denak irabazle-eta berdin ondoren

Emazu botoa ez izan tontoa horrenbestekin nahikoa. Izan praktikoa demokratikoa bola zazu belikoa

Eromerian Eromerian bizi gara bizi guk zer gura, hura uka Eromerian Eromerian zirko honen erdian

Abaltzisketatik Moskura hau da munduaren itxura: erdiak beste erdiari egiten dio buria

Gorbatxofek Bushi milaka goraintzi kendu ditzagun bi misil Busek Gorbatxofi ederra hago hi kendu ezak hik lehenbizi

Eromerian Eromerian bizi gara bizi guk zer gura, hura uka Eromerian Eromerian zu hemen eta ni han.

SOLFERINOKO ITSUA

(Herrikoa)

Harmen hartzera deitu ninduen gazterik zorte etsaiak. Urrundu nintzen herri alderat itzuliz usu begiak

Betiko gaua, gau lazgarria begietara zait jautsi. Ene herria ene lagunak inoliz ez behar ikusi.

Ene amaren begi xamurak betiko zaizkit estali. Maitñoaren begitarleak behin betiko itzali.

Ene herrian gazte lagunak begira zure haurrari eta ni, beltzik, etxe zokoan irri egiten ahanzi.

Aii Aski hola! Jainkoak barka! begira zure haurrari kontsolamendu zerbait emozu nolzbait duzun urrikari.